



**2020/09/24KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**Eguna:** 2020/09/24  
**Hasiera ordua:** 19:00  
**Amaiera ordua:** 19:35

**Bertaratuak:**

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

**Ez bertaratuak:**

- - -

**Idazkaria:**

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



## AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK. ....	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA. ....	3
3. ONARTZEA UDAL ERAIKINETAKO IGOGAILUEN MANTENTZE ZERBITZU KONTRATUAREN LUZAPENA EGITEA. ....	3
4. 2019KO KONTU OROKORRA ONARTZEA. ....	3
5. IBARRAKO GUNEA BERRITZEKO PLAN BEREZIARI (HBPB) HASIERAKO ONARPENA EMATEA. ....	4
6. ETXAGUENGO ERROTAREN UR APROBETXAMENDUAREN TITULARTASUN ALDAKETA EGITEA. ....	5
7. BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, ARAMAIOKO LANDA BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HIRUGARREN FASEARI. ....	5
8. HITZARMENA SINATZEA GORBEIALDEKO KUADRILLAREKIN, KONPOSTAJE KOMUNITARIOKO HAINBAT EREMU KONTROLATU ETA MANTENTZEKO. ....	6
9. GALDERAK ETA ESKAERAK. ....	10



## **1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURATAKO AKTAK.**

Alkate-Lehendakariak 2020ko martxoaren 9an eta ekaineko 16an egindako ezohiko bilkuretako eta otsailaren 27an egindako ohiko bilkurako akten gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## **2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (47/20tik 282/20ra).

## **3. ONARTZEA UDAL ERAIKINETAKO IGOGAILUEN MANTENTZE ZERBITZU KONTRATUAREN LUZAPENA EGITEA.**

2017ko abuztuaren 2an, 247/17 ebazpena eman zuen alkateak, udal eraikinetako igogailu eta jasogailuen mantentze zerbitzu lanak egiteko kontratua prozedura negoziatu bidez emateko espedientea irekitzea agintzen zuena.

2018ko otsailaren 14an, 36/18 ebazpena eman zuen alkateak, udal eraikinetako igogailu eta jasogailuen mantentze zerbitzu lanak egiteko kontratuaren espedientea onartu eta agintzen zuena, batetik, lizitazio prozedura irekitzea eta, bestetik, zerbitzua emateko gai ziren lau enpresari gonbidapena egitea.

Eskaintza ekonomikoak aurkezteko epea igaro ondoren, Orona, S.Coop. enpresak aurkeztutako proposamena izan zela ekonomikoki onuragarriena.

2018ko martxoaren 7an, 68/18 ebazpena eman zuela alkateak, onesteko, udal eraikinetako igogailu eta jasogailuen mantentze zerbitzu lanak egiteko kontratua esleitu ahal izateko, hainbat dokumentu errekerituz Orona, S.Coop. enpresari. Zegokion dokumentuak epe eta modu egokian espedientera atxiki ondoren, 2018ko martxoaren 26an sinatu zen esleipenari dagokion kontratua.

Kontratua arautzen duten agiri eta administrazio klausula berezien pleguan jasotzen da, kontratuaren iraupena bi urtekoa izango dela, 2018ko apirilaren 1etik kontatzen hasita, eta berariaz luzatu ahal izango dela urtero, urte beteko epez. Haatik, iraupena guztira ez dela izango lau urte baino luzeagoa.

2019ko martxoaren 5ean egindako Udalbatzak, besteen artean, onartu zuen kontratua urte betez luzatzea. Hartara, indarrean egon da 2020ko martxoaren 31 arte.

Kontuan hartu beharra dago, aipatutako data hori gainean daukagula eta, baita ere, espedientean ez dela jasotzen kontratuaren exekuzioan ezegokitasunik.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Luzatzea 2021eko martxoaren 31 arte Orona, S. Coop.i egindako esleipena, udal eraikinetako igogailu eta jasogailuen mantentze zerbitzu lanak egiteko zerbitzua aurrera eramateko.

**Bigarrena.-** Onartzea 2020ko apirilaren 1az gerostiko atzera eragina ematea.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu du Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **4. 2019KO KONTU OROKORRA ONARTZEA.**

Alkateak aurkezten du 2019ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra. Kontu Orokorra osatzen dute, batez ere, udalaren 2019ko ekitaldiko eragiketen likidazioak eta udal enpresa publikoaren kontu eta auditoria txostenak. Aurretik, dokumentu bakoitzak bere onarpena izana du dagokion foroan. Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak oniritzia eman ondoren, dagokion iragarkia argitaratu zen ALHAOn eta



dokumentu osoa jendaurrean izan zen erakusgai 15 eguneko epean eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak galdetzen du, bertan azaltzen den soberakinarekin ezer egiteko asmoa ote dagoen.

Alkateak erantzuten du, batetik, hainbat ezusteko gasturi aurre egiteko erabili beharra dagoela, esaterako, Oletako deposituan izandako lapurretak eragindako kalteari aurre egiteko; Oletako Batzar Administratiboaren egoera ekonomiko larria dela-eta, erakunde horri laguntzeko; COVID-19aren ondoriozko gastuei aurre egiteko, eta abar. Eta, bestetik, datozen urteei begira aurrezkoa izatea komenigarria izango dela, Foru Aldunditik eta beste erakundeetatik jasotako berriei bat, ekonomikoki urte gogorak baitatoz.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena:

“**Lehena.-** Onestea 2019ko Kontu Orokorra.

**Bigarrena.-** Dagokion erakundeei egoki den dokumentazioa bidaltzea jardunbideari jarraipena emateko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **5. IBARRAKO GUNEA BERRITZEKO PLAN BEREZIARI (HBPB) HASIERAKO ONARPENA EMATEA.**

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, adierazten du, prest dagoela hasierako onarpenerako, Ibarra gunea berritzeke plan bereziaren txostena. Laburbilduz, ondorengo dokumentu hauek osatzen dute aipatutako txostena: memoria; arauak; ekonomia eta fidantza bideragarritasun azterketa. jasagarritasun ekonomikoaren memoria; herritarren parte hartzea; planoak; hizkuntzaren eragin ebaluazioa; generoaren araberrako eragin ebaluazioa; eta arau partikularrak.

Azpimarratu beharra dago, aurkeztutako Ibarra Birgaitzerako Plan Berezia, dokumentazioari dagokionean, jaso egiten dituela ekainaren 30eko 2/2006 Euskadiko Hirigintza eta Lurzoru Legearen 68. artikuluan eta 7/2015 Estatuko Legeko 22. artikuluan eskatzen diren agiriak. Bestalde, Ingurumen Azterketaren Izapidea ere gauzatu dago.

Halaber, udalaz gaindiko arautegia betetzen da, besteen artean: aplikatu egin dira Arabako Foru Errepideko arauetako baldintzak; azterketa hidraulikotik eratorritako baldintzak jaso egin dira, Ibai eta erreken LZPren aplikazioan; eta, noski, ekainaren 30eko 2/2006 Euskadiko Hirigintza eta Lurzoru Legeak agindutakoak.

Besterik gabe, alkateak gogorarazten du, Hirigintza Batzordean azaldu zuela udal arkitekto aholkulariak eta bertan aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak ondorengo diktamena aurkeztu diola Udalbatzari bere onarpenerako:

“**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea Ibarra Birgaitze Plan Bereziari.

**Bigarrena.-** Era guztietako onarpen, baimen eta lizentzien emakida etetea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan. Etenaldiaren iraupena urtebetekoa izango da.

**Hirugarrena.-** Dagokion iragarkia argitaratzea lurralde historikoko aldizkari ofizialean, lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta udal honetako iragarki-oholean. Halaber, hogeitau eguneko jendaurreko epea irekitzea, beranduen egiten den argitalpenaren biharamunetik kontatzen hasita, edozein interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki irizitako alegazioak egin ahal izateko.

Halaber, interesdunen eskura egongo da espedienteaz, udal honen egoitza elektronikoan: <https://www.aramaio.eus>

**Laugarrena.-** Hasierako onarpen-erabakia jakinaraztea, lurraldekotasunagatik eragindako administrazio-batzarrei, hogeitau eguneko epean txosten bat egin dezaten.”



Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak adierazten du, txosten guztia ondo aztertzeko denborarik ez dutela izan eta, ondorioz, abstenitu egingo direla.

Alkatek bozketa deitu eta Udalbatzak, EH Bildu udal taldeko 7 zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ udal taldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin, Hirigintza Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **6. ETXAGUENGO ERROTAREN UR APROBETXAMENDUAREN TITULARTASUN ALDAKETA EGITEA.**

Alkateak hitza hartu eta adierazten du, URA Ur Agentziak ohiko bisita egin zuela Etxaguenean dagoen ur aprobetxamendura, ur bolumenak kontrolatzeko. Kontua da, ur aprobetxamendu hori gaur egun ez duela inork erabiltzen, Aramaioko Udalak bakarrik erabiltzen duela noizean behin, bisitetan Etxaguengo errota martxan jartzeko. Aurretik, aprobetxamendua Etxaguengo auzotar batzuen izenean izan da baina, gaur egun, edo zenduta daude edo ez zaie interesatzen. Horren aurrean, Ur Agentziak adierazi du, Aramaioko Udalak aprobetxamenduarekin jarraitu nahi badu, titulartasun aldaketa bat egin beharko dela eta udalaren izenean jarri. Horretarako hainbat dokumentu eskatu ditu eta, horien artean, Udalbatzak onartutako eskaera dago.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Hirigintza Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari onartzea ondorengo akordioa:

“**Lehena.-** Onartzea Etxaguengo errotaren ur aprobetxamenduaren titulartasun aldaketa egitea.

**Bigarrena.-** Honakoaren berri jakinaraztea URA Ur Agentziari.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Hirigintza Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **7. BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, ARAMAIOKO LANDA BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HIRUGARREN FASEARI.**

Alkateak adierazten du, aurreko 2019ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zitzaiola Aramaioko landa bide publikoen inbentarioaren hirugarren faseari. Horrekin batera, alegaziotarako epea ireki zen eta, horren ondorioz, hainbat iradokizun aurkeztu ziren.

Oraingoan, egindako alegazioei erantzuna ematea dagokio, beti ere, inbentarioa prestatzen ari den enpresaren erizpen teknikoan oinarrituz; eta, ondoren, behin betiko onarpena.

Besterik gabe, alkateak aurkeztu du Mendi eta Ingurumen Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehenengoa.-** Onartzea, interesdunek egindako alegazioei buruz, inbentarioa egiten ari den enpresak prestatutako txostena; onartzea, laburbilduz, alegazioei ondoren adierazten den erantzuna ematea:

- Fernando Izaga Kortabarriak egindako alegazioa (Sarrera zk: A/19-1611) onartzea.
- Iñaki Zubizarreta Letonak egindako alegazioa (Sarrera zk: A/19-1738) ez onartzea.
- Joseba Jauregi Bengoak egindako alegazioa (Sarrera zk: A/19-1535) iradokizuna aztertu da.
- Jesus Maria Elejalde Mondragonek egindako alegazioa (Sarrera zk: A/19-1568) ez onartzea.
- M. Lourdes Uribarren Balanzateguik eginiko alegazioa (Sarrera zk: A/19-1586) ez onartzea.

**Bigarrena.-** Behin betiko onarpena ematea Aramaioko landa bide publikoen inbentarioaren hirugarren fasearen txostenari.

**Hirugarrena.-** Interesdunei jakinarazpena egitea eta, interesdun bakoitzari, bere erantzuna zehazten eta oinarritzen duen txosten teknikoa bidaltzea.

**Laugarrena.-** Dagozkion iragarkiak argitaratzea.

**Bosgarrena.-** Egoki diren erakundeei honako erabakiaren berri jakinaraztea eta inbentarioaren ale bat bidaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Mendi eta Ingurumen Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



## **8. HITZARMENA SINATZEA GORBEIALDEKO KUADRILLAREKIN, KONPOSTAJE KOMUNITARIOKO HAINBAT EREMU KONTROLATU ETA MANTENTZEKO.**

Alkateak hitza hartu eta gogorarazten du, Arabako Foru Aldundiak 2018an argitaratutako Hondakinen Behatokiaren azken txostenean bildutako datuen arabera, etxeko hondakin organikoen % 8a baino ez dela gaika bildu eta kudeatzen lurralde historikoan. Bestalde, Partzuergoak 2017an egindako karakterizaziotik ateratako datuen arabera, hondar organikoak dira hondar frakzioko edukiontzietan utzitako hondakinen % 50a gutxi gorabehera.

Gorbeia Inguruetako Partzuergoa osatzen duten udalek eta Aramaiokoak hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzu hurbila, kalitatezkoa eta ingurumena eta gure ingurunea babestu eta zaintzea sustatzen duena eskaintzeko lan egiten dute. Horregatik, eta ingurumen-helburuak betetze aldera, gainerako zatikirako edukiontzietara botatzen diren hondakin organikoen ehunekoa murrizteko ekintzak sustatu nahi dituzte.

Udalerrri guztiak funtsean baserri-inguruneak direla kontuan hartuta, ingurumenaren ikuspegitik, apustua egin nahi da eredu deszentralizatu baten alde, ingurumenean inpaktu txikiena eragiten duen aukera dela zalantzarik gabe jakinik. Gainera, aipatu behar da konpostajearen kontzeptua bera hondakinak prebenitzeko jardueratzat hartzen dela; izan ere, gaikako bilketarako eta baimendutako kudeaketa-plantara garraiatzeko zerbitzurik ez dagoenez, frakzio organikoa hondakintzat har baliteke ere, baliabidez ere har baitaiteke.

Zentzu horretan, konpostaje deszentralizaturik, dela etxeko/banakako konpostajearen bidez, dela konpostaje komunitarioko ekimenen bidez, ekonomia zirkularraren adibide argia da; izan ere, hondakin organikoa aprobetxatu nahi da tokiko eskalan kudeatzeko, eta mantentzeak lurrari itzuli ongari organiko gisa. Horregatik guztiagatik, ulertu behar da tokiko jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustu gisa Gorbeialdeko eskualdean frakzio organikoa kudeatzeko eredu deszentralizatu baten aldeko apustua.

Aurrekoarekin bat etorritik, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalek konpostaje komunitarioko hainbat instalazio jarri dute martxan, eta horiek profesionalen kontrola eta jarraipena behar dute, bai legezko eskakizunak betetzen direla bermatzeko, bai horien funtzionamendu eta garapen egokia bermatzeko.

Apirilaren 9ko 63/2019 Dekretuak, konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituenak, jarduera behar bezala garatzeko eta osasunerako arriskuak prebenitzeko zenbait baldintza tekniko eta prozesuaren kontrolekoak betetzea eskatzen die instalazio horien erakunde titularrei.

Guztiaren eraginez, hitzarmen bar proposatzen da, udalek Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren esku uzteko laguntza teknikorako zerbitzuak kontratatuzko ardurak, hitzarmen honek dirauen bitartean gaituta dituzten edo gaitzeko asmoa duten konpostaje komunitarioko guneak kontrolatu eta mantentzeko. Aipatutako hitzarmenak horrela dio, hitzez hitz:

“ADMINISTRAZIOARTEKO HITZARMENA, ARAMAIO, LEGUTIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAKO UDALEN ETA GORBEAKO INGURUEN PARTZUERGOAREN ARTEKOA, AZKEN HONEK AIPATUTAKO UDALERRIEN LURRALDE-EREMUAN GAITUTAKO KONPOSTAJE-EREMU KOMUNITARIOEN MANTENTZE-ETA KONTROL ZERBITZUA EMAN DEZAN.

Murgian, 2020ko irailaren \_\_(e)an

BILDURIK

Alde batetik:

UNAI GUTIERREZ URKIZA jauna, Gorbeako Inguruen Partzuergoko presidentea eta, Batzar Orokorrak 2020ko uztailaren 9an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena.

Bestetik:

LIERNI ALTUNA UGARTE andrea, Aramaioko Udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko .....aren ...an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

JON ZUAZU ZUBERO jauna, Legutioko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko uztailaren 1ean egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA jauna, Urkabustaizko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko ekainaren 24an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

JAVIER GORBEÑA GARCÍA jauna, Zigoitiko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko uztailaren 9an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.



UNAI GUTIÉRREZ URKIZA jauna, Zuiako udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko ekainaren 24an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

Aipatutako azken hauek, zein bere udaleko alkate izanik, norberaren udalaren ordezkari dihardute, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedaturikoan aintzat harturik.

Partzuergoaren kasuan, presidentek du partzuergoaren ordezkari, erakundearen estatutuen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Alderdiek elkarri aitortzen diote egintza hau egiteko behar den legezko gaitasun nahikoa, honako aurrekari hauek kontuan hartuta:

#### GERTAKARIAK

**LEHENENGOA:** Arabako Foru Aldundiak 2018an argitaratutako Hondakinen Behatokiaren azken txostenean bildutako datuen arabera, etxeko hondakin organikoen % 8a baino ez da gaika bildu eta kudeatzen lurralde historikoan. Bestalde, Partzuergoak 2017an egindako karakterizaziotik ateratako datuen arabera, hondar organikoak dira hondar frakzioko edukiontzietan utzitako hondakinen % 50a gutxi gorabehera.

**BIGARRENA:** Gorbeia Inguruetako Partzuergoa osatzen duten udalek eta Aramaiokoak hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzu hurbila, kalitatezkoa eta ingurumena eta gure ingurunea babestu eta zaintzea sustatzen duena eskaintzeko lan egiten dute.

Horregatik, eta ingurumen-helburuak betetze aldera, gainerako zatikirako edukiontzietara botatzen diren hondakin organikoen ehunekoak murrizteko ekintzak sustatu nahi dituzte.

**HIRUGARRENA:** Udalerri guztiak funtsean baserri-inguruneak direla kontuan hartuta, ingurumenaren ikuspegitik, apustua egin nahi da eredu deszentralizatu baten alde, ingurumenean inpaktu txikiena eragiten duen aukera dela zalantzarik gabe jakinik. Gainera, aipatu behar da konpostajearen kontzeptua bera hondakinak prebenitzeko jardueratzat hartzen dela; izan ere, gaikako bilketarako eta baimendutako kudeaketa-plantara garraiatzeko zerbitzurik ez dagoenez, frakzio organikoa hondakintzat har baliteke ere, baliabidez ere har baitaiteke.

Zentzu horretan, konpostaje deszentralizatu, dela etxeko/banakako konpostajearen bidez, dela konpostaje komunitarioko ekimene bidez, ekonomia zirkularraren adibide argia da; izan ere, hondakin organikoa aprobetxatu nahi da tokiko eskalan kudeatzeko, eta mantenugaiak lurri itzuli ongarri organiko gisa.

Horregatik guztiagatik, ulertu behar da tokiko jasagarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustu gisa Gorbeialdeko eskualdean frakzio organikoa kudeatzeko eredu deszentralizatu baten aldeko apustua.

**LAUGARRENA:** Aurrekoarekin bat etorritik, Aramaio, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalek konpostaje komunitarioko hainbat instalazio jarri dute martxan, eta horiek profesionalen kontrola eta jarraipena behar dute, bai legezko eskakizunak betetzen direla bermatzeko, bai horien funtzionamendu eta garapen egokia bermatzeko.

**BOSGARRENA:** Apirilaren 9ko 63/2019 Dekretuak, konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituenak, jarduera behar bezala garatzeko eta osasunerako arriskuak prebenitzeko zenbait baldintza tekniko eta prozesuaren kontrolekoak betetzea eskatzen die instalazio horien erakunde titularrei.

**SEIGARRENA:** Hitzarmen hau sinatzen duten udalek Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren esku utzi nahi izan dute laguntza teknikorako zerbitzuak kontratatuzko ardura, hitzarmen honek dirauen bitartean gaituta dituzten edo gaitzeko asmoa duten konpostaje komunitarioko guneak kontrolatu eta mantentzeko.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA:** Jarduera hauek, ingurumena babesteko jardueren barruan daudelarik, herritarren ongizate-premien funtsezko zati dira eta, hortaz, kontratatuzko modukoak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.1 artikulua arabera, non xedatzen baita udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumene esparruan, beharrak asetzen laguntzen duten jarduerak sustatu eta zerbitzuak eman ditzakeela. Auzo-komunitatearen nahiak, artikulua honetan aurreikusitako moduan, eta, besteak beste, ingurumena babesteko eta hondakin solidoak kudeatzeko eskumenak.

Zerbitzu hori ematea udalerriei dagokiela alde batera utzi gabe, lehenengo paragrafoan zerrendatutako erakundeek Gorbeia Inguruetako hondakin solidoak biltzeko Partzuergoa eratu zuten, aurrerantzean Gorbeia Inguruetako Partzuergoa, besteak beste Legutio, Otxandio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udal-mugarteetako eta Olaeta administrazio-batzararen jurisdikzioaren barruko hiri-hondakin solidoak biltzeko eta beren tratamendu-zentroraino garraiatzeko zerbitzua modu elkartuan emateko.

Honez gain, Aramaioko Udalak Partzuergoaren esku du utzita bere lurralde-eremuan sortutako hiri-hondakin solidoak biltzea eta baimendutako tratamendu-zentroetara eramatea.

Beraz, hitzarmen honen xedea kontuan hartuta, Partzuergoa erakunde egokitzat jotzen da, hondakinei erantzun integrala emate aldera, konpostaje komunitarioko eremuak kontrolatzeko laguntza teknikorako zerbitzua ere emateko, hauen kudeaketa eta prebentzioa barne hartuta.

Gainera, interesgarria da zerbitzua Partzuergoaren esku uztea, ikuspegi hertsiki ekonomiko batetik, kostuak merkatzea ahalbidetzen baitu eskalako ekonomiari esker.



**BIGARRENA:** sektore publikoaren kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legeak (aurrerantzean SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak (aurrerantzean, SPKL), honako hau dio 31.1 artikuluan:

“1. Sektore publikoa osatzen duten erakundeek elkarri lagundu ahal izango diote, eta lankidetzaren horren emaitza ezin izango da kontratu gisa kalifikatu:

b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bidez, dagozkion hitzarmenak egin ondoren, lege honen 6. artikuluan 1. atalean ezarritako baldintzetan eta mugen barruan.”

**HIRUGARRENA:** Honako hauek lirateke SPKLren 6. artikuluan ezarritako baldintza eta mugak, toki-erakundeek beren artean egindako hitzarmenak aplikazio-eremutik kanpo utz ditzaten:

a) Parte hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izan behar (lankidetzaren xede diren jardueren % 20 gutxienez merkatu irekian egiten direnean).

b) Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren ezar dadin, zein bere ardurapeko zerbitzu publikoak elkarren artean dituzten helburuak betetzeko moduan beteko badira.

c) Lankidetzaren garapena interes publikoarekin zerikusia duten kontsiderazioei jarraituta gidatzea, ez beste ezeri.

**LAUGARRENA:** sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legeak (aurrerantzean, SPAJL), 47. artikuluan definitzen ditu hitzarmenak administrazio publikoek xede erkide baterako eta ondorio juridikorik duten akordio gisa eta hitzarmen-mota gisa ezartzen ditu, besteak beste, administrazioen arteko hitzarmenak (bi administrazio publikoren edo gehiagoren artean sinatuak); horien barruan sartu ahal izango direlarik beste administrazio baten baliabideak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.

**BOSGARRENA:** Hitzarmenen baliozkotasunari eta eraginkortasunari buruzko eskakizunei dagokienez, SPAJLren 48. artikuluan dioenez, hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu behar du, bitarteko publikoen baterako erabilera erraztu behar du, onura publikoko jarduerak egiten lagundu behar du eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete behar du. Ildo beretik, sinatzen duen administrazioari finantza-konpromisorik eragiten dioten hitzarmenen ondoriozko gastuak aurrekontu-legerian xedatutakora egokituko dira, finantzen aldetik jasangarriak izan beharko dute eta sinatzen dituztenek finantzaketarako gaitasuna izan beharko dute, indarrean dagoen bitartean.

**SEIGARRENA:** Hitzarmenen edukari dagokionean, SPAJLren 49. artikuluan araututakoak arteztuari lotuko zaio.

Aurrekoa azalduta, lortu nahi den ekintza gauzatzeko, aipatutako alderdiek honako hauek onartzen dituzte:

#### KLAUSULAK

**LEHENENGOA.** Helburua: Hitzarmen honen xedea da komunitateko konpostaje-eremu hauek kontrolatu eta mantentzeko laguntza teknikorako zerbitzuak emateko gomendioaren baldintzak islatzea. Hala ere, eremu gehiago gehitu ahal izango dira kontratuak indarrean dirauen bitartean.

UDALHERRIA	Komunitateko konpostaje-eremuak
LEGUTIO	1. Basatxi 2. Elixoste 3. Luberi 4. Urrunaga
URKABUSTAIZ	1. Plaza frontón 2. Azkarrio 3. "Alde Zaharra"
ZIGOITIA	1. Urisolo 2. Gurutze Plaza 3. Gorbeia Eskola 4. Acosta
ZUIA	1. Biguillano 2. San Martin 3. Zona III de Murgia
ARAMAIO	1. Osteta 2. Aita Gabirel

Honako hauek dira, lehenengo puntuan aipatutako udalek Partzuergoari agindutako oinarriko zerbitzuak, aurreko taulan identifikatutako konpostaje-eremu komunitario bakoitzerako egin beharko direnak:

1. Jarraipen-lanak:

- Tenperatura hartzea eta erregistratzea.





- Prozesurako hezetasun-maila optimoa egiaztatzea.
- Konpostagailuen porositatea eta trinkotze-maila egiaztatzea.
- Konpostagailuen betetze-maila kontrolatzea eta erregistratzea.
- Usain txarrak hautematea egiaztatzea.
- Edozein motatako gorabeherak detektatzea eta ebaztea, eta ondoren erregistratzea.
- Udal bakoitzeko aguazilei jakinaraztea, material egituratzailea ureztatu eta/edo hornitu behar izanez gero.
- Bisitaldi bakoitzeko jarraipen-fitxa betetzea.
- Ontzi esterilizatuan laginak biltzea, analisiak egiteko (hala badagokio), eta ondoren egiaztatutako laborategira eramatea, laginak aztertze.
- Emandako zerbitzuaren txosten eta memoria teknikoak idaztea.
- Euskal gobernuak ikuskatuz gero, laguntza teknikoa ematea.

## 2. Mantentze-lanak:

- Konpostagailu guztietako materialaren iraultzea.
- Konpostagailuen artean ontzi-aldaketak egitea, beharrezkotzat jotzen denean eta/edo prozesua errazten duenean.
- Ureztatzea, prozesurako beharrezkoa denean, edo, bestela, aguazilei jakinaraztea lan hori egin dezaten, baldin eta ezin bada zuzenean egin, hurbileko ur-punturik ez dagoelako.
- Konpostagailuei material egituratzailea ematea, prozesurako beharrezkotzat eta mesedegarritzat jotzen den kasuetan.
- Konpostagailuak hustea, zikloa bete dela egiaztatu eta heltze-egoera ezin hobean dagoela egiaztatu ondoren.

Aurreko ataletan deskribatutako zereginak udal bakoitzak izendatutako langileekin behar bezala komunikatuta egingo dira. Horrela, besteak beste, konpostagailuak husten diren bakoitzean, pertsona horiei abisua emango zaie, kasu bakoitzean ateratako konposta non utzi edo gorde behar den adierazteko.

BIGARRENA. Hitzarmen honen helburua gauzatu ahal izateko, aldeek honako ekimen hauek egiteko konpromisoa hartu dute:

### A.- ARAMAIO, LEGUTIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAko udalen aldetik:

1. Zerbitzuaren kostua finantzatzeko konpromisoa hartzea, bakoitzari dagokion neurrian, eta, horretarako, urteko udal-aurrekontuetan beharrezkoak diren aurrekontu-kredituak sartzea.

Udal bakoitzak emango zaizkion zerbitzuei dagokien kostua finantzatuko du, komunitateko konpostaje-instalazioen kopuruaren arabera. Instalazio bakoitzaren unitateko kostua honela kalkulatu da: esleipenaren prezioa zati udalerrietan dauden instalazio guztien batura.

2. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriei adostasuna ematea eta egoki irizitako ekarpenak edo alegazioak egitea, horien lizitazio-prozedura izapidetu aurretik.

3. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak eman ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, Partzuergoak eskatuta beharrezkoak diren ordainketak egitea, kontratazioa arautzen duen administrazio-klausula zehatzen agirian ezartzen diren aurreikuspenekin bat etorritik,

Honi dagokionez, Partzuergoak, eskaintako zerbitzuengatik faktura edo fakturak jaso eta enpresari ordaindu aurretik, udalen adostasuna eskatuko du horietako bakoitzari eskaini zaizkion zerbitzuekiko, eta partzuergoren kontuan dagokien kopurua sartzeko eskatuko die, gehienez ere 15 egunen epean.

### B.- GORBEAKO INGURUEN PARTZUERGOn konpromisoak:

1. Udalen adostasuna eskatzea, horiek izapidetu aurretik, hitzarmenaren xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriei eta azken horrek egokitzat jotzen diren ekarpenak edo alegazioak egin ahal izate.

2. Esleipenaren emaitzaren berri ematea zerbitzuan sartutako udalei, bai eta hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketaren berri ere, zerbitzuen esleipendun den pertsona edo erakundearen luzapenak, atzera egiteak, uko egiteak edo bestelako inguruabar garrantzitsuak barne.

HIRUGARRENA. Hitzarmen hau 4 urtetan egongo da indarrean, SPAJLren 49.h) artikularekin bat etorrita, formalizatzen denetik hasita. Hala ere, epe hori amaitu aurretik, hitzarmena sinatu duten erakundeek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena azkentzea edo beste 4 urtez luzatzea.

LAUGARRENA. Batzorde bat (6 kide) osatuko da betearazpenaren eta jarraipenaren kontrolaz arduratuko dadin. Partzuergoko ordezkari batek eta zerbitzua jasoko duten udal bakoitzeko bana ordezkari osatuko dute batzordea.

Organo honen eginkizunak izango dira, besteak beste, kontratatutako zerbitzuak eskaintzerakoan sor daitezkeen eztabaidak ebaztea eta hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio-zalantzak argitzea.



BOSGARRENA. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak betetzen ez badira edo behar bezala gauzatzen ez badira, zerbitzua jasotzen duten udalek idatziz helaraziko diote Gorbeia Inguruetako Partzuergoari prestazioa ez eman izana edo zerbitzua ematean izandako hutsuneen berri emanez, partzuergoak, idazkia jaso eta 5 egun naturalen epean, helaraz diezaion kontratuaren enpresa esleipendunari eta honek alegatu egin beharko du pleguetan ezarritako epean. Alegazio hauek ikusita, Gorbeia Inguruetako Partzuergoak egokien leritzokeen erabakia hartuko du antzemandako egoera irtenbidea eman dakion.

SEIGARRENA. Honako hauek dira hitzarmena baliorik gabe uzteko arrazoiak:

- Indarraldia igarotzea.
- Bi aldeak ados jartzea aho batez.
- Alderdietako batek ez betetzea alde bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.
- Hitzarmenaren balio gabetasuna ebatzi duen epai judizial baten harira.
- Edo hitzarmeneko klausulak betetzea eragozten duten arrazoiengatik, gerora sortutakoengatik.

ZAZPIGARRENA. Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordenaren ezagutzakoak eta eskumenekoak izango dira.

Sinatzeko duten aldeek, zeinek bere neurrian, bere egiten dute hitzarmen honetan ezarritako zehaztapenak beren gain hartzeko konpromisoa.

Adostutakoarekin ados daudela adierazteko, agertutakoek dokumentuaren sei ale sinatu dituzte, erakunde bakoitzari bana emateko.”

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena, Gorbeialdeko Kuadrillak hitzarmena osorik euskaratu eta bidali ondoren:

“**Lehena.-** Konpostaje komunitarioko hainbat eremu kontrolatu eta mantentzeko hitzarmena sinatzea, horren bidez zehazten baitira, laguntza teknikoko zerbitzuak emateko mandatua gauzatzeko baldintzak.

**Bigarrena.-** Lierni Altuna Ugarte alkatea eskuordetzea aipatutako hitzarmena sinatzeko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## 9. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1. Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak galdetzen du, Ibarako gunea berritzeko plan bereziaren jardunbidearen inguruan, ea posible den egutegi bat edukitzea edo nolabait aurrerantzean eman beharko diren urratsen planifikazio bat edukitzea.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazten dio, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 95 eta 97 artikuluen artean arautzen duela eta han aurkituko duela zehatz-mehatz egin beharrekoak eta epeak. Hala ere, arazoren bat izaten badu edo beste zalantzaren bat, berarekin edo udal arkitekto aholkulariarekin kontaktuan jartzeko lasai.

2. Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak adierazten du, aipatu dietela Andramariko parkean edaten ibiltzen omen direla hainbat gazte aste buruetan.

Alkateak erantzuten dio ez duela horren berririk izan baina herrigunetik urrun gelditzen den toki bat izatean, posible dela. Jarriko dela kontaktuan Bergarako Ertzain-etxearekin eta galdetuko diela ea zerbait egin dezaketen.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.